



Abiatu berri dugun 2021-2022 ikasturtean, aurtengo **Eskolako Agenda 2030** programari ekin diogu. Eskolako Agenda 21 zena, iaz Agenda 2030 bihurtu zen eta Nazio Batuetako Erakundeak adostutako Garapen Iraunkorreko 17 Helburuetan oinarritzen da. Helburu hauek nagusiki mundu mailan pobrezia desagerrarazi, planeta babestu eta pertsona guztiei oparotasuna bermatzeko sortu dira.

Aurten, iaz ezagutzen hasitako 15. helburuarekin jarraituko dugu: LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZIA. Aurtengoan gai berria dugu eskuartean: **Zelaiak, larreak eta landare itsutasuna**. Gure inguruko landareak ez ezagutzea, ez ikustea da landare-itsutasuna.

Zelaiak eta larreak biodibertsitatez beteriko ekosistemak izateaz gain, belarra, Euskal Herriko baserrietan dagoen altxor preziatua dugu. Horretaz gain, zientzialari ugariak dioten bezala, landareekiko itsu bihurtzen ari gara, belaunaldiz belaunaldi dugun ezagupena galtzen ari garelako.

Ikasturtean zehar, zuen seme-alabekin batera, hausnartzeko aukera paregabea dugu. Hauek izango dira landuko ditugun helburuak:

- Eskola inguruan ditugun zelaiak, larreak eta lorategiak ezagutzea eta horien erabilera didaktikoa bultzatzea.
- Gizakiaren eta naturaren harremanean sakontzea, habitat mota batzuk gizakiaren kudeaketak baldintzatzen dituela ikusarazteko.
- Ikasleek euren eskola inguruko eta herriko lorategien kudeaketa aztertzea, bai eta proposamenak egitea horien kudeaketa hobetzeko.
- Landare-itsutasuna txikitzea, eta inguruko landare espezie arruntenak ezagutzeko proiektuak garatzea.
- Konpetentzia zientifikoaren lanketaren ondorioz, ondorioak atera eta proposamenak egitea inguruan ditugun zelaia, larre eta lorategien kudeaketari buruz.

Burutuko diren ekintzen berri izango duzue eta zuen proposamenak ongiatorriak izango dira. Animatzen zaituztegu zuek ere, zuen seme alabekin batera, herri jasangarri baten alde borrokan bat egitera. BIZITZA HORRETAN DOAKIGU!

[Garapen Iraunkorrerako Helburuak](#)